

1989'ko EKINTZAK

Gabon bazkide maíteok:

Oikoa danez, ona emen erakunde onek igaz bururiko ekíntzen azalpena:

IKASTAROA EUSKERAZ

Urtero egiten dogun lez, igaz be euskera-irakaskintzeari jarraitu geutsan. Ikasle asko izan ez arren, badirudi, azken aldiotan ízaniko beerakadea zeozer eten egin dala. Artutako barrien arauz, leku guztietan ikasleen kopurua beeratu da, euskaltzaletasuna galduta, edo irakaste-leku geiegi zabaldu dalako.

Aurten be, udako ikastaroa, ezín izan dogu abia-dan ipíñí, izen-emotea oso urria izan dalako.

EUSKAL ASTEA BIZKAIERAZ

Eskolapiotarren ikastetxean, Euskal astea atondu genduan, Bilbao'ko udalaren babespean. Ona emen dagokíozan gora-beerak eta gai-emoilleen izenak:

Azilla'ren 20'gnean. Bertsogintza. Muníategi'tar Abel'ek.

Azilla'ren 21'gnean. Euskerazko iztegiak. Onaindia'tar Santi'k.

Azilla'ren 22'gnean. Basetxeak Euskalerrian. Zubíkarai'tar Augustiñ'ek.

Azilla'ren 23'gnean. Errotak non eta zelakoak. Astu'tar Alberto'k.

Azilla'ren 24'gnean. Antxiñako euskaldunen egun andiak. Olazar'tar Martiñ'ek.

Itzaldiak guztiz zudugarriak izan ziran, bear dan beste lagun etorri ez arren. Entzuleek ez eben damurik ízan etorri izategaitik, eta poz-pozik urten ziran.

IPUIN-SARIKETEAK

Igaz be atondu genduan oiko leiaketa au Gabonetan, ia idazleen kopuruak gora egiten dauan, idazle barriak erakarrik. Idazlanen aurkezpena zeozer atzeratu zan, eta augaitik, sari-banaketea aren baten atzeratu bear izan dogu. Edozelan be, Epailla'ko "ZER"en zenbakian epaia jakin-era zoko dogu.

Sariak, beste aurrekoetan lez, onek izango dira: 1'goa 40.000, 2'gna 30.000, 3'gna 20.000, eta 4'gna 10.000 laurlekokoak.

EGUTEGIA EUSKERAZ

Aurtengo, 1990'ko egutegia, atondu genduan ígaz, oiko lankideen laguntzaz, eta Olazar'tar Mar-

tiñ'en zuzendaritzapean. Izan be, ekintza onek pozez beteten gaitu, leku guztietatik eskaera asko dogula egiztatzean batez be.

Bízkaí'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzeari esker, egutegi ori argítaratzeko gai izan gara, eta laguntza orrek uts ez egitekotan, aalegínduko gara gure egutegía urtero agertu daiten.

"ZER" ALDIZKARIA

Ona emen poztasunez bete gaituan beste ekíntza bat. Euzkadi'ko erakundeek gure bizkaíerea aztu edo zapaldu dabenean, gure euskeraz agertzen dan aldizkari bakarra illero-illero agertu da igaz be. Zerbaitek, gure laguntza ta aalegin guztiak merezi ba'dauz, aldizkari au da ezpaíbarik. Jarraitu dagigun ba, bazkideen eta idazleen laguntzaz illeroko au argítaraten, ia noiz Bizkaí'ko seme jatorrak jagiten diran euren zapal dutako euskerearen alde.

Gure aldetik ez dautsagu ukatuko iñongo aalegínik aldizkari oneri, eta Euzkadi'ko erakundeek bizkaíerea zapaldu ta ezereztu dagien bitartean, gure etengabeko salakuntza agiria aldarrikatzen jarraituko dogu, bizkaítarren gogoen ateetan jo ta jo, ia zorakeri au noiz amaitzen dan.

LAGUNTZAK

Ona emen bearrezkoak diran tresnak. Bata diruz, gure asmoak egi biurtzeko ezinbestekoa da-ta. Erakunde oneri buruz zuen burua arro ikusí gura ba'dozue, ez egiozue ukatu urteko saria. Aurtengoa, igazkoa lez, 1.000 laurlekokoak izango da.

Ezin dagikegu isildu, baiña, Bizkaí'ko Aldundiaren diru-laguntza, eta zati andi batez "EUSKERAZALEAK"ek igaz egiñikoa, berari zor dautsagu. Bioakio beraz, gur eskeronaren autorpena.

Baiña diru-laguntza bearrezkoa ba'da, zuen adore-laguntza areago da baita be. Eta betekizun au burutzeko, "ZER" gure aldízkaíarearen orriak gerturik dozuez zuen idazlanen laguntza artzeko. Astindu zuen alperkeria ta ekin lanari.

Amar-urte barria asi da, eta guraririk onenak opa dautsueguz osasun eta euskaltasun betean.

Besterík ez.

ZUBIRI'tar IÑAKI